


LKN AUKERATU ETA ANTOLA ZAITEZ



Manolito Realizacjón...2014



LANAREN KONFERAKUNDE NAGUSIA www.rojoynegro.info
www.cgt-lkn.org

LKN AUKERATU - LKN-n ANTOLATU - LKN-n PARTE HARTU

Sindikatu guztiak ez dira berdinak, zure lan esperientziagatik aski ongi dakizu hori. Zure lantokian LKN-ren atal sindikala baldin ba dago edo kanpotik jaso ahal izan duzun informazioaren bitartez, gure erakundea osatzen dugun presonen jokamoldeak eta egiteko moduak nolakoak diren.

LKN langileriaren abotsa da, inoren bitartekaritzarik gabe, eta gure bozeramaleen lana (LKN-n ez baidago delegaturik, baizik eta bozeramaleak) **portaera etiko, ereduzkoa, autonomia, partehartzailea eta gardentasun bermea da.**

Langileria gutxietxia izateaz nazkatua dago, ez ikusia, erabilia, engainatua, estafatua, lapurtua, aipua kendu izanaz, kritikatu izateaz... nazkatua dago. Kokoteraino, bere eskubide sozial, laboral eta askatasunak murriztu behar izatearekin; aspertua orokorrean harekin zer ikusirik duten aferetan parte hartu ezin izanagatik. Batzutan hitzarmenen ondorioz eta besteetan arduragabekeriagatik (Enpresari eta botere publikoen gehiegikerien aurrean deus ez egiteagatik), bere ordezkariak direla esaten duten hioen jarduera axolagabea eragiten dioten Lan-baldintza kaxkarrekin, langabeziarekin, bazterkeriarekin eta mixeriarekin nazkatua dago.

LKN langileen eskuetan, **borrokarako lanabes** ezin hobea da. Gure **eskubideak defendatzeko**, lan-baldintzen zuzeneko hobekuntzak exijitzeko, **negoziaketa kolektiboa mamitzeko**, gure **lan-postuen eta beren lan-baldintzen defentsarako**, **zerbitzu publiko unibersalen alde** egiteko, eskuragarriak eta kalitatezkoak. Etxe kaleratzeen aurrean, Lan Eregulazio Txostenen (LET) aurrean, enpresen deslokalizazioaren aurrean, soldaten, laguntza sozialen eta pentsioen murrizketen aurrean irmoki gure ezadostasuna azaltzeko. Ala nola korrupzio sindikalarekin, politikoarekin eta finantziarioarekin bukatzeko.

LKN ez da alderdi politiko baten menpeko, ezta inolako erakunde publiko edo pribatuarena ere, edo inolako presio-talderena ere, ezta guztion ordezkari pensatu eta erabakitzen duten kupula ejekutiba edo profesionalen menpeko ere. Ezta ere, ez du bere diskursoa eta jarduera baldintzatu dezaketen laguntza edo subentzio publikorik jasotzen; ostera, bere **militanziaren eta afiliazioaren esforzu eta konpromezuaren bitartez autogestionatzen du bere burua.**

LKN bera osatzen duten langileek osatzen dituzten batzarren menpeko da, eta bere lan egiteko ereduak, **partehartzea, elkar-laguntza eta ekintza zuzena dira**, modu honetan denok izan gaitezke erabakien norabidearen arduradun.

Iraunkortasuna, dekrezimendua, agroekologia, gizarte-ekonomia, industria kutsakorren desagerpena, energia berriztagarriak eta konsumo murrizta, LKN-k proposatzen duen produkzio ereduaren oinarriak dira. Gizasemeen beharrak asetzeko urbileko ekonomia, merkatu jatunen interesen menpeko ekonomiaren ordezkari. Gure helburua, prozesu produktiboen eta gizarte antolaketaen **autogestioa da, eskema asanblearioak, ez-autoritarioak ezta jerarkikoak** oinarritzat hartuz.

Kide zaren hori, benetan erregimenaren sindikalismo negargarria, edo horren beste kalte egin digun sindikalgintza oria edo korporatiboa atzean utzi nahi baldin ba duzu, **LKN-ren alde egizu apostu, aukera gaitzazu, gurekin batera antolatu zaitez, gure kandidaturatan parte har ezazu, LKN-ko kideekin batera borrokatzera etor zaitez.** Ez dizugu kale egingo eta zure bizitzaren jabe zarela sentitu ahal izango duzu.

INORK EZ DEZALA ZURE ORDEZ ERABAKI